




MURUETA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Armarri erdibitua: 1., zilarrean, haretx berdea kolore bereko zelaian eta puntan uhin urdin eta zilarrezkoak; 2., urrean hiru dorre harriztatuak naturalean, bordura urdina urrezko hamabi izarregaz.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

Escudo partido: 1º, en campo de plata, con un roble de sinople, terrasado de lo mismo, en punta ondas de azur y plata; 2º, de oro, tres torres empedradas, de su color natural, bordura de azur, con doce estrellas de oro.

AITAMEN HISTORIKOA

Busturiko merindadeko eleizatea, Bizkaiko Jaureria. Gernikako Batzar Nagusietan 4. botua eta eserlekua eukazan. 1093an Lope de Iñiguez, Bizkaiko bigarren jaunaren emazteak Muruetako parrokia Donemiliaga Kukulako monastegiari emon eutsan, eta emoitza horren agirian aitatzen da Murueta. Eneko Díaz de Murueta azaltzen da emoitza-aren berresle legez.

1718ko irailean Muruetako matxinatu-talde bat, beste eleizate batzuetako lagun batzukaz batera, Gernikara joan zan; matxinadaren arrazoia Erregearen aginduaren bidez Bilbon aduana ipini ebela zan, eta hori, foruen kontra joian. Gernikan hainbat gehiegikeria egin ostean, biharamuan Bermeora joan eta sei lagun hil zituen. Iskanbila horreek zira-la-eta bizkaitar bat baino gehiago joan zan gartzelara eta Bermeoko hilketengaitik heriotz-zigorra ezarri eutsien hamesei laguni; euren artean Muruetako bi egozan.


RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia de la merindad de Busturia, Señorío de Bizkaia. Tenía el voto y asiento 4 en las Juntas Generales de Gernika.

Aparece citada Murueta en la donación de su parroquia por la esposa de Lope Iñiguez, segundo señor de Bizkaia, al monasterio de San Millán de La Cogolla en 1093. En la donación aparece como confirmante Eneko Díaz de Murueta.


En septiembre de 1718, un contingente de insurrectos de Murueta, junto con gentes de otras anteiglesias, fue a Gernika, alborotada por el establecimiento,

por orden real, de una aduana en Bilbao, medida que no respetaba los fueros. Tras cometer numerosos desmanes fueron los insurrectos al día siguiente a Bermeo, donde mataron a seis personas. Numerosos vizcaínos fueron condenados a penas de prisión por su participación en estos alborotos y dieciséis fueron condenados a muerte, entre ellos dos de Murueta, por los asesinatos perpetrados en Bermeo.



IKURRIÑA

Deskribapena: 1914koa da eta gorritz landutako ehunean dago eginda; urrezko flekoak ditu bazter guztian. Barruan, alde batean beilegiz bordatutako obaltoa, eta honen inguruan barrualdean, beilegiz bordatutako hizkietan "Ayuntamiento de Murueta"; eta izena osatzen dauan obaloaren barruan, berdez bordatuta, arbola bat. Obaloaren behealdean, ertz guztian, berdez bordatuta, erramu bat.



BANDERA

Descripción: pendón: data de 1914 y está realizado en tela labrada de color rojo, con flecos dorados en todo su borde. En el interior, por un lado posee un óvalo bordado de color amarillo, alrededor del cual, por el interior, consta en letras bordadas en amarillo la leyenda "Ayuntamiento de Murueta" y dentro del óvalo que forma el nombre se halla, también bordado, en color verde, un árbol. En la parte baja del óvalo y bordeándolo, bordado en color verde, existe un laurel.